



Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen Lan Hitzarmenaren 2. mahaia Negoiazioak bertan behera jarraitzeko datarik gabe

Atzo ekainaren 1ean egin zen Lan Hitzarmeneko mahaiaren bigarren saioa. *Kristau Eskolak* sektoreak Administrazioaren aldetik jaso dituen murrizketen berri eman zuen. Bere ustez Administrazioak ez omen du tratu bera ikastetxe publikoekin eta sektoreak, aurrera egin beharrean atzera egin du era nabarmenean Hezkuntza Sail berriarekin. Horrela aurreko Sailarekin sinatutako akordioko hainbat atal (ordezkapeneratarako igoera), inbertsioetarako diru-laguntzak, IRALE, Hezkuntza Bereziko Especialistak kontratatuzko partida, etorkinena... jaitsiera izugarriak izan dituzte. Bere aburuz, negoziazio erabat baldintzaturik dago eta gerta daiteke funtzionarioei egingo dieten jaitsiera bera ere sektoreari aplikatzea, Hezkuntza Sailak legalki egiteko formularen bat aurkitzen badu. Horregatik erakunde bakoitzak erretratatu behar du bere burua argi esanez zer pentsatzen duen itunpeko irakaskuntzaren funtzioaz.

Adostu beharko genuke nora heldu nahi dugun eta gero, eskutik helduta, Administrazioarengana joan diru eske.

Sindikatu gehienek uste genuen mahai ez zela lekua hezkuntza politikaz edo eskola ereduaz hitzegiteko, beste fororen batean horretaz hitzegiteko prest agertu baginen ere. Negoiazio mahaiaren harreman laboralak arautzeko gaiak jorratu behar direlakoan gaude eta patronalak bere eskaintza plazaratu beharko luke.

Egoera ikusita eta aurtengo finantziazioaren azken-azkeneko egoera ez dakitela jakinda bilera bertan behera gelditu zen bilerarako hurrengo data jarri gabe.

2ª sesión negociadora de la Mesa del Convenio de Centros de Iniciativa Social Suspendidas las negociaciones sin fecha de continuidad

Ayer, 1 de junio se reunión en segunda sesión la Mesa del Convenio. *Kristau Eskolak* expresó la necesidad de un previo para analizar la situación planteada en el sector por los grandes recortes presupuestarios que se han llevado a cabo por el nuevo Departamento. A su juicio los centros concertados no tienen el mismo trato que los públicos. Han recortado partidas como las sustituciones acordadas con el anterior Departamento, ayudas a obras, IRALE, contratación de Especialistas de Apoyo Educativo, la partida para alumnado inmigrante... La negociación está totalmente condicionada y el Departamento se ha planteado –si encuentra la fórmula legal para ello- aplicar en el sector el recorte que va a tener el personal funcionario.

Cada organización debe retratarse y definirse respecto a la función de la enseñanza concertada. Se podría acordar a donde queremos llegar y luego- consecuentemente-reclamar juntos (patronales y sindicatos) la financiación necesaria.

La mayoría de los sindicatos no nos negamos a hablar de política educativa y modelo educativo, pero pensamos que la mesa del Convenio no es el foro adecuado. Aquí se debe hablar de la regulación laboral y la patronal tiene que presentarnos su propuesta para este año, respondiendo a lo que hemos pedido los sindicatos.

Dada la situación y el desconocimiento de la financiación real de la que dispondrán los centros se suspende la reunión sin finar una fecha para reanudar las negociaciones.